

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantza aldatzeari

Udalak, 2020ko martxoaren 5ean egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespena ematea zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasak arautzen dituen zerga ordenantzaren IX. eranskineko b) Igerilekuak epigrafearen aldaketari.

Iragarkia 2020ko ekainaren 3ko ALHAOn, 62. zenbakian, argitaratutako iragarkiaren bidez jendaurrean egon den aldian inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onarturik geratzen da, jarraian bezala idatzita:

ZERBITZU PUBLIKOEN ETA ADMINISTRAZIO JARDUEREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua

Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauak xedatzen duenarekin bat etorritik, udal honek zerbitzu publikoen eta administrazio jardueren tasa ezarri eta eskatzen du, ordenantza honen arabera, zeinaren zati baita jarduera horiek jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua

Zerga egitatea da Udalak benetan zerbitzua eskaintzea edo jarduera egitea, bai eskatu zaio-lako, bai gizabanakoek egindako ekintzek eta egin gabe utzitakoek zeharka eragin dutelako.

III. SUBJEKTU PASIBOA

4. artikulua

1. Subjektu pasiboak edo zergadunak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrek 35. artikuluko 3. paragrafoan aipatzen dituen erakundeak, baldin eta zerbitzuak edo jarduerak eskatzen badituzte eta horien onuraz edo eraginaz gozatzen badute.

2. Zergadunaren ordezkioak izango dira:

a) Zerbitzu edo jardueren tasetan, onura edo eragina jasotzen duten erabiltzaileen etxebizitza edo lokalen jabeak; horiek, hala badagokio, onuradunei ordainarazi ahal izango dizkiete.

b) Arriskua aseguratzen duten entitate edo sozietateak, zerbitzu hauen tasetan: suteen prebentzioa eta itzaltzea; aurri, eraikuntza eta eraisketen prebentzioa, salbamenduak eta, oro har, pertsona eta ondasunak babestea eta zerbitzua mantentzea.

c) Hirigintza baimenen tasetan, hau da, lurrari eta hirigintza antolamenduari buruzko arautegian xedatutakoetan, eraikitzaileak eta obren kontratistak.

5. artikulua

Hauek ordaindu beharko dituzte tasak:

- a) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek eskatzen badituzte, eskatu dituztenek.
- b) Egindako zerbitzuak edo jarduerak gizabanakoek ez badituzte eskatu baina haiek egindako edo ez egindako zerbaitengatik egin behar izan badira, egindakoa edo ez egindakoa egotz dakiekeen pertsonak.

6. artikulua

Subjektu pasiboarekin batera, ordenantza honetatik ateratzen diren zerga zorrak ordaindu beharko dituzte tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonak.

IV. SALBUESPENAK, MURRIZKETAK ETA HOBARIAK

7. artikulua

Salbuespenak eta bestelako zerga onurak aplikatzekoak diren xedapen orokorren arabera emango dira.

V. ZERGA OINARRIA

8. artikulua

Zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitza izango da zerga oinarria, eranskinak dioenaren arabera.

VI. KUOTA

9. artikulua

1. Zerga kuota izango da, eranskinean ezartzen denaren arabera, zerga oinarriari tarifa bat aplikatuz ateratzen dena, ezarritako kopuru finko bat, edo bi prozedura horiek batera aplikatuz ateratzen dena.

VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA

10. artikulua

1. Tasa sortzen da zerbitzua edo jarduera egiten denean.

VIII. LIKIDAZIOA ETA DIRU SARRERA

11. artikulua

Udalak kontzeptu bakoitzarengatik egin beharreko likidazioa egingo du, eta likidatutako zenbatekoa dirutan ordainduko da, ordainarazpen bakoitzerako eranskineko tarifetan dauden arauen arabera.

12. artikulua

Ordenantza honek araututako tasen likidazio, bilketa eta ikuskatzearen gaineko guztian, eta zergen arau hausteen kalifikazioari eta dagozkien zehapenak zehaztearen gaineko guztian, Arabako Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

IX ERANSKINA

A) EPIGRAFEA. ESTOLDERIA

KONTZEPTUA	TARIFA
a) Hartunerako baimenagatik edo lizentzia emateagatik. Etxebizitzako.	91,00 euro
b) Estolda zerbitzua emateagatik.	Ur kontsumoaren % 6

B) EPIGRAFEA. IGERILEKUAK

	TARIFA/EURO	
	ERROLDATUAK	ERROLDATU GABEAK
25 urtetik gorakoek	3,50	4,50
Gazteak (14 urte baino gehiago eta 25 urte edo gutxiago)	2,50	3,50
Gazteak (5 urte baino gehiago eta 14 baino gutxiago)	2,00	2,50
Familia abonamendua	35,00	70,00
Banako abonamendua, 25 urtetik gora	25,00	50,00
Banako abonamendua, 25 urtetik behera	15,00	30,00
Familia ugariaren abonamendua (berria)	30,00	50,00

Familia abonamendua: familia unitatetzat zera hartzen da: senar-emazteek edo izatezko bikoteak osatzen dutena, abonamendua ordaintzeko garaian 18 urte baino gutxiago duten ondorengo ahaideak barne direla, baita 18 urte baino gutxiago duten ondorengo ahaideak dituzten guraso bakarreko familiak ere.

Egiaztapenak: Adina NANaren bidez egiaztatuko da, eta 14 urtetik beherakoek familia liburuaren fotokopia bidez egiaztatuko dute, NANA izan ezean.

Familia unitatea familiaren errolda orriaren bidez egitaztatuko da. Familia karneta familiaren errolda orriaren barruan jasotako pertsoneri luzatuko zaie.

Hobariak eta salbuespenak:

- 25 lagunetik gorako taldeek ehuneko 20ko deskontua izango dute sarrera bakoitzeko.
- Doakoa izango da 5 urtetik beherako pertsonen sarrera.
- Doakoa izango da, baita ere, erroldatuta egon eta 65 urte baino gehiago duten pertsonen sarrera.
- Doakoa izango da banakako abonamendua erroldatuta egon eta ezindutzat jotzen diren pertsonentzat, 44/1989 Foru Arauak, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergako salbuespenak arautzen dituenak, 2. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Horretarako, hobaria eskatu egin beharko dute udalean.

c) EPIGRAFEA. KIROLDEGI PABILIOIA

KONTZEPTUA	TARIFA
Kiroldegi pabilioiaren erabilera. Erabilera ordu bakoitzeko.	12,25 euro

D) EPIGRAFEA. FUTBOL ZELAIA

KONTZEPTUA	TARIFA
Futbol zelaiaren erabilera. Erabilera ordu bakoitzeko.	90,25 euro

E) EPIGRAFEA. TENIS KANTXA

KONTZEPTUA	TARIFA
Tenis kantzaren erabilera. Tenis kantzaren erabilera, ordu bakoitzeko.	3,75 euro

F) EPIGRAFEA. ZABORRA BILTZEKO ZERBITZU PUBLIKOA EMATEA

1. ATALA. ETXEZ ETXEKO ZABOR BILKETA					
	TARIFA 2018 1. SEIHILEKOA	TARIFA 2018 2. SEIHILEKOA	TARIFA 2019	TARIFA 2020	TARIFA 2021
Egoitzak	77,11	89,50	179,00	201,37	223,75
Mekanika lantegiak, garajeak, haztegiak, gasolindegia	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
Ikastetxeak, aterpetxeak	61,50	71,38	142,76	160,61	178,45
Artziniegako etxebizitzak	28,63	33,23	66,46	74,77	83,08
Tabernak	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
Lantegiak	110,27	127,98	255,95	287,95	319,94
Saltegiak	36,05	41,85	83,69	94,16	104,62
Erakundeen etxebizitzak % 50	14,32	16,33	32,66	36,74	40,82
Hotelak, jatetxeak, kasinoak	61,50	71,04	142,08	159,84	177,60
Bulegoak, txokoak, elizak ...	36,05	39,63	79,26	89,16	99,07

2. ATALA. ETXEZ ETXEKO BESTELAKO TRESNEN BILKETA	EUROAK
Etxeko tresnak, etxetresna elektrikoak, altzariak	6,25

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta beraren eranskina ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean, eta indarrean egongo dira aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

DIRUBILKETA ALDIA: ura, estolderia eta zaborrak: sei hilean behin (ekaina eta abendua).

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Artziniega, 2020ko uztailaren 16a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES